

1.BALIO PROPOSAMENA

Gure ideia:


Jatetxe modernizatu bat



Hauek gure jatetxe barruan egongo diren zutabeak izango dira baina apaintzeaz aparte igogailua barruan jarriko genuke

Gure mekanismoa mahai guztietan janari igogailu bat jartzea da. Baita ere eskatzeko tableta edo mugikor bat jarriko dugu zerbitzaria mahaietaz mahai joan beharrean.

Sukaldean ere zutabeak jarraitu behar du eta eskari guztientzako pantaila bat edukiko dute zerbitzari eta sukaldariek.



Gure enpresaren alde positibo eta negatiboak:



Zerbitzariari lana erraztu, bezeroen eta zerbitzarien arteko liskarrak murriztu, erosotasuna langileen eta bezeroetan, azkartasuna izango litzateke gure ezaugarrietako bat...



Akats teknologiko asko ekar diezazkiguke, bi pisuko jatetxea izan beharko luke eta teknologia hau jartzeak ere prezioa asko igoko liguke, tramankulu edota makina gehiegi beharko lirateke, interakzio gutxi egongo litzateke langile eta bezeroen artean.

Gure **balioaren** aldetik kuantitatiboa prezioan eta kualitatiboa diseinuan izango da.

Lehiakideengandik bereiziko gara:

Modernitatea aplikatuz diseinuan: gure jatetxea oso modernoa izango da eta jarriko dugun innobazio honek aurrera pausu handia emango dio gure arrakastari.

Jatetxearen **berritasuna**:

Nahiz eta teknologia asko eduki eta hasieran diru asko inbertitu behar izan dugun, janariaren prezioak ez dira igoko edota prezio altu batean ezarriko. Familia guztientzat eskuragarri izango den prezio bat finkatuko dugu.

Nabarmendu beharra dago, jatetxearen diseinua oso modernoa dela. Eskariak famili bakoitzak egingo du, mahaietan egongo den tablet baten bitartez. Eskariak zuzenean sukaldera iritsiko dira eta janaria ere, igogailu moduko plataforma batean iritsiko dira mahaira, kamareroen laguntzaren beharrik gabe.